

kizu kuma ondora, begi ertzetan mun ezta ezar-tera. Aize poz-argiak ba-daroaz zure orkatil estu-netako kanpai txikien txintxin-ots gozoak.

Ames sorgiñen amandrea be or dator egun-sentian, zero zear, zureganaiño egazka. Mundu amaren biotz min guztia zurekin dozu, zure amaren biotzean. Zure leio azpian txirula joten dau izarren kantariak. Eta ames sorgifien amandrea or dator egun-sentian, zero zear, zureganaiño egazka.

6

LO-LAPURRA

—Ia, nun da ori, umetxoari begietako boa os-tu dautson ori ? Neuk astinduko dot !

Ama, txanbilla eskuratu ta gerrian ezarririk, auzora joan zan uretan. Eguerdia ortxe-ortxe zan. Umeak nekatuta egozan jolasean, paitak barriz ixilik ur-zingiran. Artzaintxoa lo egoan pikoaren itzalpean. Men ta begi-zoli agiri zan zigoña, ii-sail ertzean, luze etsita antza... Eta lo-lapurra eldu zan, eta umetxoaren begietatik boa artu ta joan zan egazka. Ama itzuli zanean, lau-oinka aurkitu eban umea lo-gela erdian.

—Ia, nun da ori, nire umetxoaren begietako boa lapurtu dauan ori ? Neuk astinduko dot !

Nun gorde da maltzur alako ori ? Oratuko dautsot eta sokaz lotu. An leza illuntsu aretan, arrikote urduri artean, errekatxoak txipli-txapla da-

gian lekuan egon bear dam Bakul-oianeko gerizpe lo-erazlean billatuko dot, bai, uso-kumeak urruma gozoz dagozan txokoan, sorgiñen zintzarriak txintxin dagien gau izartu bake sakonean. Begi-zizta bat jaurtiko dot, bein gaututakoan, banbu-ibarreko ixiltasun antsiz betera, ots, ipurtargiak argi-itxaso diran lekura. Ta bidean iñor aurkitzen baldin ba'dot, galde egingo dautsot: Bai al daki iñok lo-lapurra nun gordeten dan ?

—Ia, nun da ori, umearen begietatik boa arzen dauan ori ? Neuk astinduko dot !

Nun, nun dago ? Aurkituko ba'neu aurkitu, erakutsiko neuskio nik zelangoa izan ; bai orixe ! Aren gordelekuko arria jasoko neuke, ta gero, an osturik daukan lo guztia artu ta etxera eroango neuke oso-osorik. Lapurra, ostera, txit gogor lotuko neuke ego bietatik, eta ondoren ibai ertzean laga : dabillega antxe kañaberaz arrainketan, lili, zume ta ii artean...

Ta gabaz, azoka itxi ta aurtxoak amaren magalean legokezanean, gau-txoriak ara joango litzakioz ta belarrietara burlaz ulu : Tira, geldotzar, ia orain nori ostuten dauskan loa 1

7

ASIERA

—Nundik nentorren ni, zuk aurkitu ninduzunean ? —itandu eutsan umeak bere amari.

Arek, barre-lorea ezpan-gain ta malko-ñirñirra begian, semea bularraren kontra estuturik, onela